




Ikastolako Lehendakaria, berri emaile



Kontseilu Errektoreak egindako azken bileraren berri doakizue.

Os informo de la última reunión del Consejo Rector.

KONTSEILU ERREKTOREA 2024-03-21

CONSEJO RECTOR 2024-03-21

7. BATZARRAREN INGURUAN EGINDAKO BI SAIOETAN JASOTAKOA ETA HURRENGO PAUSOAK.

Ikastolen 7. Batzarraren ekarpen eta emendakinen lanketa egiteko prozesuaren berri eman da. Bi bilera ireki egin dira eta 80 kide inguruk hartu dute parte. Lehengo bileran Ikastolen Elkarteak proposatutako txostenak aurkeztu ziren eta bigarreanean, lan-taldetan antolatuta, atal desberdinen lanketa egin zen. Ekarpenak egiteko epea apirilaren 15era luzatu da, guraso eta profesionalen eskura dagoen [formulategiaren](#) bidez. Jasotako ekarpenak *Bazara Kontseiluak* landuko ditu eta apirileko Kontseilu Errektorean ebatziko da Ikastolaren izenean zein emendakin aurkeztuko diren. Bileretan egon den giro eraikitzailea eta *Bazara Kontseiluko* kideen zein bileratako dinamizatzaileen lana azpimarratzekoak direla aipatu da.

2023-2024 IKASTURTEKO PLANA.

Zuzendari Nagusiek azken bileran azaldutako helburuen jarraipenaren txostenaren inguruko hainbat galdera egin dituzte Errektorekideek. Galderak erantzun eta zalantzak argitu ostean, helburuen betetze maila martxa onean doala baloratu da.

BAIMEN ORDAINDUEN ARAUDI ESPEZIFIKOAREN ALDAKETAK.

Baimen Ordainduen Araudi Espezifikorako aldaketa proposamenak dokumentuan jasotako aldaketak azaldu ostean, testua onetsi da.

2023ko LAN SARIAK IGOTZEA.

Ikastolen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak 2023ko diru-laguntzak %0,5 igoko dituela eta, proposatu du lan sariak portzentaia horretan igotzea. Finantziazioa bermatuta egonda, aldeko erabakia hartu da aho batez.

BESTERIK

- MONDRAGON.

Ezagutza dibisioko lehen bilera egin zen. Ezagutza dibisioarekin elkarlanerako aukerak zabalduko direla eta sinergiak aprobetxatzeko aukera emango duela baloratu da.

- Kontseilu Soziala.

Ikastolako profesionalen klaustro guztietan aurkeztzen ari da murrizketen inguruan onartu den araudi berria.

7. BATZARRA. DESCARGO DE LAS DOS SESIONES CELEBRADAS Y SIGUIENTES PASOS.

Se da cuenta del proceso de elaboración de las aportaciones y enmiendas para la 7ª Asamblea de las Ikastolas. En las dos reuniones que se han celebrado han participado cerca de 80 miembros. En la primera reunión se presentaron los informes propuestos por Ikastolen Elkartea y en la segunda, organizada en grupos de trabajo, se trabajaron los diferentes apartados. El plazo para realizar aportaciones se ha ampliado al 15 de abril a través del [formulario](#) a disposición de familias y profesionales. Las aportaciones recibidas serán contrastadas en "Bazara batzordea" y en el Consejo Rector de abril se resolverán las enmiendas que se presentarán en nombre de la Ikastola. Se destaca el ambiente constructivo que ha habido en las reuniones y la labor de los miembros de "Bazara kontseilua" y de las personas que han dinamizado las reuniones.

PLAN DEL CURSO 2023-2024.

El informe de seguimiento de los objetivos planteados por la Dirección General en la última reunión ha sido objeto de diversas preguntas por parte de los Rectores. Una vez contestadas las preguntas y resueltas las dudas, se ha valorado que el grado de cumplimiento de los objetivos va a buen ritmo.

MODIFICACIONES DE LA NORMATIVA ESPECÍFICA DE PERMISOS RETRIBUIDOS.

Una vez explicadas las modificaciones recogidas en el documento para el Reglamento Específico de Permisos Retribuidos, se aprueba el texto.

RETRIBUCIONES DE 2023.

Ikastolen Elkartea ha propuesto subir las retribuciones de 2023 en un 0,5% debido a que las subvenciones del Gobierno Vasco de 2023 han subido en ese porcentaje y la financiación está garantizada, se adopta una decisión favorable por unanimidad.

OTROS

- MONDRAGON.

Se celebró la primera reunión de la División de Conocimiento. Se ha valorado que se ampliarán las posibilidades de colaboración con la división y que permitirá aprovechar sinergias.

- Consejo Social.

En todos los claustros de profesionales se está presentando la nueva normativa que se ha aprobado sobre las reducciones de jornada.

- Ikastolen Elkarteak.

EHI-ko Artezkaritza Kontseiluaren berritze partziala egin behar dela azaldu da. Gipuzkoako ordezkari bat berritzea tokatzen da. Prozesua zabaldu eta Pasai-Lezoko ordezkaria hirugarren agintaldirako aurkeztea proposatu da, salbuespen moduan. Bertako ordezkaria da une honetan EHI-ko trantsizioko lehendakaria eta 7. Batzarra burutu bitartean berak EHiko lehendakari gisa jarraitzea egokia dela uste da.

- Ikastolen Elkarteak.

En EHI se ha planteado la necesidad de una renovación parcial de su Consejo Rector. Toca renovar una persona que representa a Gipuzkoa. Se propone abrir el proceso y que la representante de Pasai-Lezo se presente para un tercer mandato, de forma excepcional y hasta que se celebre la 7ª Asamblea. Ella es en estos momentos la Presidenta de transición de EHI. Se considera oportuno que permanezca como Presidenta de EHI durante la celebración de la Asamblea.

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

APIRILA: data nagusiak

2024/04/24 Kontseilu Soziala
2024/04/25 Kontseilu Errektorea